

ERASO MATXISTEI AURRE EGITEKO PROTOKOLOA

BERTSOZALE ELKARTEA



bertsozale
elkartea



emagin

AURKIBIDEA

0.	Hitzaurrea	5
1.	Protokoloaren helburua eta filosofia	7
2.	Indarkeria matxistaren inguruko irakurketa	10
3.	Aplikazio-eremua	12
4.	Erasoen sailkapena	14
5.	Prozedura, proposamenak eta neurriak	16
6.	Kudeaketarako bitartekoak	23
7.	Gida azkarra	27

Hitzaurrea

Ondorengo lerroetan garatuko den protokoloa Bertsozale Elkartek Emagin Elkartearekin batera 2019ko urritik abendura bitarte buruturiko prozesu parte hartzaile baten bidez osatua da.

Bertso ekosisteman era ezberdinetan parte hartzen duten, eta zehatzago, Bertsozale Elkartearen egitura eta alor ezberdinetan borondatezko edo langile gisa diharduten Euskal Herriko herrialde ezberdinetako hamarnaka kidek parte hartu dute protokoloaren diseinu prozesuan. Zuzendaritza kideen konpromezua eta parte hartzea ere ezinbesteko izan dira, parte hartze prozesuak emandako emaitzak balioeste eta ezartze aldera.

Bertsozale Elkartearen Gogoeta Estrategikoan jasotako lan-ildoak eta ideiak *Bertsozale Elkartearen Etorkizun Ikuspegia 2018-2030* dokumentuaren osagarri eta jarraipen gisa planteatzen dira. Feminismoaren inguruan Baionan eta Barrian egindako gogoeten emaitza izan zen lan lerro nagusiak identifikatzea; 2. lan lerro nagusiaren - “Bertsozale Elkartearen egitura, harremanak, rolak lantzea, prozesuetan partaideon zaintza jarriz erdigunean”-, Bertsozale Elkartearen baitan indarkeria matxista egoerak bideratzeko protokoloa sortzea.

Kontutan hartu behar da, protokoloa osatzeko prozesua bertan parte hartu duten kideen formazio eta sentsibilizaziorako baliogarria izan dela.

Protokoloa osatzeko prozesuaren hasieran, nagusiki Bertsozale Elkartearen egiturari loturiko kasuak kudeatzeko helburua zuen arren, Bertsozale Elkartea mugimendu osoaren erreferentziazko erakundea izanik, honen aitzindari eta erreferentzia izateko aspirazioa ere badu. Hala, prozesuan zehar elkartearen muga lausoetatik harago joateko beharra ikusi da eta, zentzu zabalago batean heldu kasuistika eta esku hartze posibleei.

Indarkeria matxista gizartearen egitura patriarkalaren ondorio den fenomeno izanik, Elkartean gertaturiko erasoen aurrean esku hartze integral eta eraldatzailerako ibilbidea marrazten laguntzeko proposamena da; era berean, aipatzea ez dela dokumentu itxi bat, uneoro bizirik dagoen tresna baizik; prozesu berrosatzaile eta justizia eredu feministan sakonduz kasuak kudeatu ahala, eztabaida eta ikaspenenetatik egokitzen eta fintzen joateko beharra aurreikusten baitugu.

Dokumentuan ondorengo atalak lantzen dira; Lehenengoan, protokolo honen helburua eta esku hartzeak ezaugarritzen dituzten printzipio orokorrak azaltzen dira; Bigarren atalean, protokoloak aurre egitea helburu duen indarkeria mota teorikoki kokatzen da; Hirugarren atalean, protokolo honen aplikazio zehatzaren ingurukoak zehazten dira: prozedura, eraso sailkapena, aplikazio eremua eta hartuko diren neurriak kasu bakoitzean, erasotua izan denarekin, eraso egin duenarekin eta komunitatearekin. Azken puntuan, neurrien kudeaketarako beharrezkoak diren baliabideak eta protokoloaren aplikazioaz, jarraipenaz eta balorazioaz arduratuko den lan taldearen ezaugarritzea azaltzen da.

1.

Protokoloaren helburua eta filosofia

Protokolo honen helburu orokorra **Bertsozale elkartearen bueltan ematen diren indarkeria matxistaren zuzeneko kasuen kudeaketa erraztea** da. Esku hartzean baliagarria izango den tresna praktikoa izatea du helburu, erasoren bat gertatuz gero nola jokatu bideratzen laguntzeko.

Hauek dira eraso matxisten aurrean jarduteko protokolo honen oinarrian dauden **printzipio orokorrak**:

● Irekitasuna eta itxitasuna

Eraso matxisten kontrako protokoloa irekia da, egoerak eta baldintzak anitzak direlako oso, eta, beraz, ez dago errezeta itxi, zurrun eta bakarra. Halaber, tresna zehatza edo itxia izan nahi du, kasu baten aurrean jarraitu beharrek bidea errazten duelako, momentuan eztabaida amaiezinetan sartzea ekidinez. Zentzu honetan, euskarri bat izan behar duela uste dugu, espezifikoki jarduteko argibideak emango dizkiguna eta nondik nora jo bideratzen lagunduko diguna. Hau da, printzipio, oinarri eta balio komun batzuk zehaztuko dizkiguna erasoei nola aurre egin argitzeko, baina irekia zentzu horretan, ezin baititugu egoera posible guztiak aurreikusi.

● Bertsio gudarik ez

Inplikatuak ez daude maila berdinean, egiturazkoa den botere harreman baten baitan gertatzen dira eraso matxistak (3. *puntuari eraso matxisten ulerkerari buruzko informazio gehiago*). Esku hartzea ez da oinarrituko bi parteak entzutean eta ea bietako nork duen arrazoia erabakitzean. Zentzu honetan, eraso jasan duen pertsona babestea eta laguntzea izango da gure lehentasuna.



vectorjuice / Freepik

● **Konfidentzialtasuna eta informazioaren kudeaketa**

Oso garrantzitsu da inplikaturako pertsonen konfidentzialtasuna gordetzea eta zurrumurruak ekiditea. Bestela, epaiketa publikoa, eraso jasan duenaren berbiktimizazioa, eraso egin duenaren heriotza soziala eragin dezakegu. Informazioa eta erabakiak ze markotan kudeatzen diren argi eduki behar dugu hasieratik eta marko horrek kideen konfiantza eta zilegitasuna sentitu behar du. Zer kontatu eta nola ondo pentsatu.



● **Justizia berrosatzailearen printzipioa**

Erasoen kudeaketarako proposatzen ditugun prozesuak klabe erreparatzaile eta eraldatzaileetan kokatu behar ditugu. Hauek izango lirake gure esku hartzeen helburu nagusiak:

1. Erasoren ondorioz sortu diren zauriak eta minak ez handitzea eta ahal den neurrian osatzea.
2. Erasoa bizi izan duen pertsonaren balizko berrosatze prozesua babestea edo lanketa prozesu bat martxan jartzen laguntzea.
3. Erasoa ez errepikatzea, edo gutxienez erasoak ekiditeko talde dinamika zaintzea
4. Erasoa egin duenaren bergizarteratze feminista.


Justizia punitiboak proposatzen duen zigorraren orde, egindakoa eta eragindako mina onartzen badu, prozesu bat egiteko aukera eskainiko zaio. Lanketa pertsonala edota trebakuntza feminista egitea proposatuko zaio eta bitartean eraso jasan duenaren ongizatea bermatzeko eta koherentzia politikoarengatik espazio edo funtzio batzuk betatuak izango ditu. Konpromezuak betetzen diren heinean, betoak errebisatzen joango dira azken helburua bergizarteratze feminista eta elkarteko bizitzan normaltasunez aritzera iritsi arte.

Printzipio honek zalantzak sortzen ditu, eskainitako baliabide eta indar handia dela eta, eraso egin duenarekin egindako lanketak funtzionatuko ote duen bermerik gabe. Era berean, *bergizarteratze feminista* eman dadin baldintzak ote dauden eta beraz, prozesua bere amaierara heldu den jakitea zaila gerta liteke.

● **Ardura kolektiboa da**

Eraso bat ez da soilik bi pertsonen artean gertatzen den zerbait. Guztiok baimendu dugu nolabait botere harreman horiek egoitea eta, gainera, gertaera horrek komunitate osoari eragiten dio. Ondorioz, lanketak egiteko 3 subjektu hartuko ditugu kontutan: eraso egin duena, eraso jasan duena eta kolektiboa edo komunitatea. Elkarte osoak dauka inplikatzeko ardura.

Kudeaketarako lantalde bat sortzearen beharra dago, baina egiturak sostengatu beharreko prozesuak dira. Ezin du pertsona zehatz batzuegan edo feministengan soilik geratu ardura. Pertsonak aldatu arren, egiturak sostengatu behar du protokoloa eta hortik eratorri daitezkeen prozesuak. Lantalde horren zaintzan arreta jartzea, eta ahal den neurrian bermatzea, ere garrantzitsua da.



● **Proporzionaltasuna**

Erasoaren araberako prozesuak eta neurriak hartuko dira. Horretarako, eraso mota, testuinguruaren faktoreak eta eraso jasan duenaren egoera eta beharrak kontutan hartuko dira. Justizia berrosatzailearen filosofiari jarraiki, eraso egin duenak prozesuan inplikatu eta aurrera egiten duen heinean, berarekin aurrez hartutako konpromisoak betetzearen bermeak ziurtatu behar ditugu

2.


Indarkeria matxistaren kokapen orokorra

Indarkeria matxista jendarte antolaketa patriarkarrak duen tresna nagusia da genero sisteman erroturik dauden pertsonen arteko desberdinkeria sozialak eta gizon-emakume botere-harremanak birsortzeko eta emakumeak azpiratzeko. Honetaz gain, indarkeria matxista kontzeptuak, espazio fisiko eta sinboliko guztietan, tradizionalki ezarritako genero binomio edo eskemetatik at kokatzen diren gorputz eta identitateengan ematen den indarkeria mota oro jasotzen du, hala nola, homofobia, lesbofobia eta transfobia.

Gainera, indarkeria matxista heteropatriarkatua, kapitalismoa eta kolonialismoa gurutzatzen diren sistema batean kokatu behar dugu. Zapalkuntza sistema horien arteko loturak askotariko biolentziak eragiten ditu (sistemarteko indarkeria edo indarkeria transistemikoa). Zapalkuntza sistemak ez daude airean, gure gorputzetan gurutzatzen dira hainbat une eta eratan: klasea, arraza, jatorria, adina, nazioa, hizkuntza, orientazio sexuala, genero identitatea, itxura fisiko, funtzionaltasuna, etab¹.


Indarkeriak ez dira modu isolatuan eta bakartuan ematen diren erasoak. Zapalkuntza ardatzak iraunaraztera norabideturiko indarkeriak, baditu dimentsio anitzak (Galtung, 1990): **indarkeria zuzena** gertakari zehatza da, jarrera edo ekintza bidez eragindakoa eta ikusgarria; **Egiturazko indarkeriak** botere eta baliabideen banaketa desorekatuari, esplotazioari eta biziraupenerako oinarritzko beharren asebetetze ezari egingo lioke erreferentzia; eta **indarkeria kulturalakin**, indarkeria zuzena eta egiturazkoa legitimatzen dituen gizarteko esfera sinbolikoa izendatzen du egileak.

Protokolo honek indarkeria matxistaren ondorio diren indarkeria zuzenen aurrean soilik jarduteko helburua izango du. Erakundean izan litezkeen bestelako indarkeriak (sinbolikoa eta egiturazkoa) Berdintasun Planaren bidez landuko dira.



1) Euskal Herriko mugimendu feministak erailketa sexisten aurrean erantzun bateratu bat emateko 2013an adostu zuen protokoloa oinarri hartu, eta 2017ko "Indarkeria matxista birpentsatzen" jardunaldietan emandako go-goetakin eguneratua

Ohikoa da herri mugimendu zein erakundeak genero sistema horren parte izanik, bere kidegoaren artean generoaren araberako botere harremanak eta bortizkeria matxista adierazpen ezberdinak erreproduzitzeko joera; baita parekidetasuna aldarrikatu duten haietan ere. Norberaren komunitatea eta konfiantzazko eremua izateak erasoak antzematea eta kudeatzea zaildu dezakeela adierazi da maiz protokolo honen osatze prozesuan; zentzu berean bertso munduan historikoki tradizioak pisu handia izan duen eremu maskulinizatua izatea ere badu eragina. Bertso munduan emakumeek bizituriko indarkeria matxista anitzen inguruko testigantzak jasotzen dira *Kontrako Eztaritik* (Alberdi, 2019) lanean.



3.

Aplikazio-eremua

● Esku hartze zuzena:

Protokolo honek, zuzeneko indarkeria kasu bat gertatzean, erasotua izan dena edo/eta eraso egin duena Bertsozale Elkartearen kidegoaren parte bada edo Elkartek antolaturiko jarduera batean parte hartzen duen kideari eragingo die. **Esku hartze zuzena** egingo da kasu hauetan, protokolo honetan azaltzen den ibilbidea bere osotasunean gauzatuz eta Elkartek prozesuaren ardura, kudeaketa eta jarraipena bere gain hartuz.

1. Bertsozale Elkarteko **egituraren parte diren langileak**, bertsolariak (Lankun izena emandakoak edo beraien ingurunean erreferentzialtasun bat daukatenak), epaileak, gai jartzaileak edo borondatezko kideak eraso batean inplikaturik daudenean, izan eraso egin duena, izan eraso jasan duena ala biak.

2. Elkartek antolaturiko jarduera batean bertan **modu zuzenean parte hartzen** duenean eraso egin duenak edo eraso jasan duenak ala biak.

● Erdibideko esku hartzea

Bertsozale Elkartea mugimendu zabala den heinean, bestelako kasuistika ezberdinak gerta litezke, zeinetan protokoloa bere osotasunean aplikatuko ez bada ere, hau da, prozesu luzeen jarraipenak egingo ez badira ere, elkartek zerbait egiteko ardura sentitzen duen. Hauek dira **erdibideko esku hartze** bat egitea eskatuko luketen kasuak:

3. Elkartek antolaturiko ekimen-jardueretan bertan **zeharkako parte hartzea** dutenak inplikaturik gero (ikusle eta entzuleak, ekimenerako kontratatutako pertsonak...), erdi bideko esku hartzea aztertuko litzateke kasuan kasu, eraso bizitu duenari baliabideak eta babesa eskainiz.

4. Bertso mugimenduko **bestelako jardueretan** - Elkartearen ardurapean ez dauden jarduera-ekimenetan- eraso salatuko balitz, kasuan kasu aztertuz, erdi bideko esku hartzea egingo litzateke, eraso bizi duenari baliabideak eta babesa eskainiz.

5. Edozein kasutan, bertso ekosisteman Elkartera eraso bat salatzeraz jotzen duenari arreta egingo zaio eta baliabideak eta babesa eskaini.

Kasu horietan, ondorengo irizpideak kontutan hartuko dira:

- Erasoa jasan duenari babesa eta baliabideak eskaintzeko prestutasuna.
- Bertsozale Elkartetik kanpo eraso bat salatu eta bestelako eragile baten protokoloaren aktibazioa eman bada, hura lehenetsi eta babestuko da.
- Bestelako eragileekin koordinazioa eta informazioa partekatzea, beharrezkoa izanez gero.



Komenigarria da argitzea, esku hartze zuzena eta erdibidekoaren arteko ezberdintasuna ez dagoela erasoaren larritasunean, biziki eta inplikaturiko subjektuek egiturarekiko duten harremanean, eta beraz Elkartek izango duen esku hartze mailan.

4.

Erasoen sailkapena

Ondorengo irudian indarkeria zuzenari dagozkion hainbat eraso zerrendatzen dira.

Hala ere, zenbait ohartarazpen:

- Protokoloa hau egiteko prozesuan parte hartu duten kideek une konkretu batean identifikatu eta zerrendaturikoak dira. Esan gabe doa, hemen jasotzen ez den ekintzarik, eraso bezala identifikatuz gero protokoloak esku hartuko lukeela.
- Eraso zerrenda honekin batera, bestelako egiturazko zenbait gai identifikatu ziren, hemen-dik kanpo utzi direnak eta balizko Berdintasun Plan batekin lantzeko liratekeenak.
- Eraso kasu baten aurrean, orientagarria izan liteke irudikapen hau, edonola ere, egoeraren azterketa egiteko 5.1 puntuko II. Urratsean jasotzen diren bestelako testuinguruari dagozkion faktoreak ere hartuko dira kontuan.

Intentsitate altuko erasoak

Bortxaketak. Ukituak. Intimidazioa. Irainak. Eraso fisikoak. Eraso sexualak, abusuak. Mehatxuak. Xantaia. Umilazioa. Jazarpena. Oihuak. Bere inguru naturalarekin loturak apurtzera behartzea. Sexu eskaintza ez desiratuak. Jarraipena: Fisikoa/birtuala-telefono bidezkoa. Jazarpen sexuala. Intimidazioa. Informazio ofizialaren erabilerak. Matxisismoaren apologia. Jazarpen pertsonalak (sare sozialetan eta kalean).

Erdi mailako erasoak

Emakume baten plaza bateko parte hartzearen aukako boikot eta irain publikoak. Eskatu gabeko lizunkeriak esatea. Hitzen bidezko jazarpena (xantaia, mehatxua). Festa giroan, bertsolariak jarrera lizuna. Burla. Ignoratzea. Lekuz kanpoko komentario matxistak. Piropoak. Mespretxua. Zurrumurruak eta epaiketa. Jantzkerari buruzko komentarioak egitea. Itxurarekiko balorazioak (janzkera, gorputza..). Botere jazarpena. Ardura daukan pertsonaren gainetik, norbere boterea (Bertso mundukoa ere) erabiltzea gauzak lortzeko. Emakume bertsolaria bere kantukidearen jarrera eta diskurtsoarekin deseroso sentiaraztea plazan (lizunkeriak, fisikoari buruzko epaiak...)* Biolentziaz isilaraztea.

Intentsitate baxuko erasoak

Bileretan emakumeen hitza isilaraztea. Bileretan txandak ez errespetatzea. Hizketaldia etetea. Bilere-tako jazarpena eta errespetu galerak/ Bileretako tratua on eza. Hitza ukatzea. Ardura daukan emakume bategana jo beharrean, ardura ez daukan gizonezko batengana jotzea. Gutxiespen berbala. Komentario eta begirada lizunak. Itxura fisikoarekiko epaiak Gutxiestea. Keinuak eta hitz egiteko forma mingarriak erabiltzea. Denbora eta espazioaren banaketa ez kontrolatzea. Ahotsa altxatzea /ahotsaren bolumena erabiltzea bestea isilarazteko. Emakume/ gizon iritzia berdinean ez epaitzea. Umore sexista/trufa. Begirada gutxitzaile perbertsoak. Komentarioak eta epaiak. Emakumeen publikotasunaren aurkako jarrera. Aitakeriaz jokatzeko edo infantilizatzea. Piropoak botatzeko. Bertso saioetan gertatutakoak, bat-batekotasunaren jardunean.*Bertsolari emakumeen gutxiespen publikoa (txapelketan, sare sozialetan,...). Zeharkako gutxiestea. Desadostasun kronikoa. Zurrumurruak. Boterearen erabilera ikusezin bihurtzeko. Jarrera matxistak. Gutxiespen publikoa (lan taldean). Sinesgarritasuna kentzea. Gutxiespena bertso mailan. Funtzioen araberrako jarrerak, komentarioak. Pertsona baten ardura ukatzea eta aitortza falta: inbisibilizazioa. Bileretan emakume batek esandakoa aintzat ez hartu eta gero gizonezkoak bere ideia bezala "saltzea". Lana zalantzan ezartzea.

5.

Prozedura, proposamenak eta neurriak

5.1 PROTOKOLOA URRATSEZ URRATS

● I. Protokoloaren aktibazioa

Protokoloa aktibatu aurretiazko aurre lan eta baliabideak ondorengoak dira:

Prebentzioa.

Berdintasun planean planifikatuko dira indarkeria eta erasoen prebentziorako neurriak (eskola feminista, emakumeak ahalduentzeko saioak, gizonekin maskulinitateak eta desribile-jatzea, elkarteen barruko botere harremanak eta demokratizazio tresnak, ...)

Protokolo bat edukitzea eta hau existitzen dela ezagutzera ematea ere prebentzio neurri bat izan daiteke, gizon batzuk tentuz ibiltzeko eta emakumeak seguruago eta libreago sentitzeko egoera bat salatzeko edo aurre egiteko orduan. Elkartearen babesa izango dutelako badakitelako.

Protokoloaren sozializazioaren beharra.

Jendeak jakin behar du protokolo bat existitzen dela eta nora jo behar duen gertatutakoaren berri emateko. Eremu edo proiektuak pentsatu nola izan daitekeen.

Lantalde baten beharra.

Egituraren ardura da erasoak kudeatzea eta horretarako lan talde bat izendatzea da praktikoa (*Ikus. 6.1 puntua*).

Baliabideen mapa.

(*Ikus. 6.2 puntua*).

● II. Egoeraren azterketa

Erasoaren inguruko informazioa aztertu:

Noiz gertatu da? Non, zein eremutan? Nolakoa izan da eraso? Informazio iturrira gerturatu eta informazioa osatu. Erasoa bizi duenak eta eraso egin duenak ze kokapen dute kolektiboan? Eta non egiten dute topo?

Erasoaren nolakotasuna definitzeko 2 irizpide nagusi baliatuko ditugu:

- Erasoen sailkapena (*ikusi 4. puntua*)
- Testuinguruari lotutako faktoreak:
 - Inpaktua
 - Maiztasuna
 - Intentsitatea
 - Kokapen soziala
 - Denbora
 - Ikusgarritasuna
 - Arriskua
 - Sortutako ondorioak
 - Botere posizioak: Generoa, adina, antzinasuna, arraza edo jatorria, kolektibo barruko boterea/posizioa

Eraso jasan duenarengana gerturatzea:

Lehentasuna izango dute eraso jasan duen pertsonaren behar eta denborek. Informazioa eman diguna ez bada eraso jasan duena, berarengana hurbiltzeko modu egokiena bilatu. Gure babesa adierazi eta protokoloaren berri emango diogu. Zer nahi eta behar duen galdetuko diogu eta behar izatekotan, pentsatzeko denbora eman. Garrantzitsua da bere bizipenak eta gertatutakoaren kontakizuna zalantzan ez jartzea, ez epaitzea eta jarrera paternalistik ez edukitzea. Egoera hau konplexuago bihur liteke eraso jasandakoak bat baino gehiago direnean, askotariko behar eta estrategien artean oreka bilatuz.

Eraso egin duenarekin hitz egin:

Iritsitako gertaeraren berri emango diogu eta elkarteak protokolo bat eta lantalde bat daukala holako egoerak kudeatzeko neurri eta proposamen zehatz batzuekin. Ikusi beharko dugu berak eraso egin duela onartzen duen eta inplikatzeko jarrera positiboa erakusten duen edo ez. Beraz, bi norabideetan bereiziko da eraso egin duen pertsonarekiko Elkartearen jokabide eta esku hartzea:

- Ez badu eraso egin duela onartzen, aukera egongo da bestelako neurri edo ekintza batzuk egiteko, hala nola, salaketa publikoa edota kaleratze zuzena.
- Erasoa egin izana onartzen badu, prozesu bat proposatuko diogu bergizarteratze feministago bati begira.



III. Kudeaketaren urratsak eta neurriak

Erasoa egin izana onartzen badu, lanketa hiru dimentsiotan egingo dugu: erasoa jasan duenarekin, erasoa egin duenarekin eta taldearekin. Dimentsio ezberdin hauetan hartzen diren ekinbide eta erabakien inguruan zer eta nola jakinarazten dugun tentuz aztertu beharko dugu.

Erasotua izan denarekin:

Zaintza, babesa eta laguntza eskaini. Bere ongizatea izango da lehentasuna. Ardura guztia bere gain jarri gabe, balizko berrosatzeari begirako prozesua berarekin batera pentsatu. Dauzkan beharrak identifikatu, entzun, isiltasunak errespetatu, bere inguruarekin batera zaintzarako neurriak hartu eta bere erabakiak errespetatu.

Elkarte edo kolektiboaren barruko bizitza normaltasunez eta lasaitasunez jarraitzeko aukera bermatu behar dugu. Betiko espazioetara joateko eta markoetan parte hartzeko aukera edukitzea askatasunez eta baldintzatzaierik gabe.

Kasu batzuetan, Elkartek asetu ezin dituen beharrak izan ditzake erasoa pairatu duenak eta kanpo baliabide profesionalen bidez eman diezaiokegu erantzuna, horretarako kontaktu eta tresnak helaraziz: terapeuta feminista, abokatuak, formatzaileak... *(Ikus 7.2 Baliabideen mapa puntua)*

Erasoa jasan duenarekin:

Behin egindakoa onartuta, neurri eta lanketa batzuk proposatuko zaizkio eraso motaren arabera. Neurri hauek aurrez zehaztuak ditugunak izango dira (6. atala). Garrantzitsua da berarekin HITZARMEN batera iristea: lan taldeak prozesu baten proposamena egingo dio, bitartean beto bezala ulertuak diren neurri batzuk barnebiltzen dituenak (lanaldiari lotuta, elkartean parte hartzeari, publikotasunari, espazioen kudeaketari...). Erasoa egin duenak autonomiaz hori onartzea eta ardura bere gain hartzeko konpromezua adierazi behar luke. Ahal den heinean, denboralizazio bat zehaztuko dugu eta prozesuaren jarraipena diseinatu dugu.

Komunitatea:

Kolektiboak behar batzuk izan ditzake gertaerak elkartean izandako inpaktuaren arabera, komunitate guztian eragina izan duen gertakaria izan daitekeelako. Beraz, berrosatze kolektiboaren kudeaketan ere pentsatu behar du lan taldeak, gertakariak sorturiko min eta hunkipena arindu edo sendatzeko espazio seguruak eta baliabideak eskainiz. Bestalde, erabaki behar da lan taldeak ze informazio eta noiz partekatzen den talde osoarekin. Maila batean elkarte osoak prozesuaren berri izan behar du eta babesa, zilegitasuna eta aitortza eman behar dio lan taldeari. Honetaz gain, bakoitzak daukagun arduraz hausnartu behar dugu: bai erasoa gertatu zeneko eszenatokian, nola osteko egoeran hartzen ditugun (edo ez ditugun) jarrerekiko.



IV. Jarraipena:

Puntu honi garrantzia eman behar zaio, zailena izan ohi delako. Hasieran eraso baten berri izaterakoan mundu guztia asaldatzen da, zurrumurruak zabaltzen dira, guztiek nahi dute iritzia eman edo zerbait egin, amorrua bideratu... baina olatua berehala jaisten da eta hortik denbora gutxira ahazten joan edo eguneroko bestelako gauzek lehentasuna berreskuratzen joan ahala, prozesuak mantentzeko energia, baliabide eta denbora agortzen joaten dira.



Zentzu honetan, garrantzitsua da kasuaren kudeaketa diharduten **lan taldeko ki-deen zaintza** ahal den neurrian bermatzea. Energia eta denbora eskatzen dituzten prozesu zailak izan ohi idira eta eragin emozional eta sozialak izan ohi dituzte inplikatuengan: bai eraso kasuen testigantza eta kudeaketa eraginda, edota kanpo presio edo komentarioak tarteko.

Nolako harremana erasoa bizitu duenarekin?

Zuzenean berarekin harremanduko garen, gu edo inguruko lagunen bitartez, ze maiztasunarekin edota ze informazio nahi duen eta zein ez erabaki.

Nola harremanduko gara erasoa egin duenarekin?

Diseinatu jarraipenaren maiztasuna, berarekin zuzenean nor harremanduko den, merezi digun gertuko norbaitekin ere harremana izatea, terapia edo bidelaguntza prozesuren bat egiten duen pertsonarekin harreman zuzena edukiko dugun...

Prozesua ondo badoa eta hartutako konpromezuak edota epeak betetzen diren heinean, betoak edo hartutako neurriak murrizten joango dira. Momenturen batean erasoa egin duenak hitzartutakoa betetzen ez badu edo neurriren bat errespetatzen ez badu, bererakin hitz egingo dugu eta hitzarmena bergogoratuko diogu. Lan taldeak, aginduak baino, ardura beregan har dezan saiatuko da: erasoa egin duenak hartu behar du egindakoak ekarritako ondorioen ardura, eta hori sendatu eta berriz errepika ez dadin bermatzeko ardura.

V. Itxiera eta ebaluazioa

Ebaluazioa bide osoan zehar egiten joatea komeni da prozesua nondik bideratu behar dugunaren inguruko pistak emango dizkigulako.

Amaieran prozesuaren ebaluazioa egiterakoan, kontutan izan minak berpiztu daitezkeela berriro gaia ateratzerakoan. Zaindu momentua eta baldintzak.

Ebaluazioarekin batera garrantzitsua da prozesuaren sistematizazioa egitea, elkartearen kasuen esperientziak biltzen joatea eta horietan oinarrituta, protokoloa berritzen, osatzen eta egokitzen joatea, prozesu eraginkorrako kudeatzen joateko.

5.2 PROPOSAMENAK ETA NEURRIAK

Ondorengo tauletan eraso baten aurrean jarduteko prozedura ezberdinak eta bakoitzari dagokion proposamenak jasotzen dira. Protokoloa kudeatzeaz arduratuko den lan taldeari dagokio, egoeraren azterketa egin ostean (*ikus 6.1.II puntua: erasoen sailkapena + testuinguruari lotutako faktoreak*), esku hartze mota (*ikus. 3. Puntua: Aplikazio eremua*) eta dagokion prozedura esleitzea.

● Esku hartze zuzena

	1. PROZEDURA	2. PROZEDURA	3. PROZEDURA
ERASOA JASAN DUENA	- Dakarrena kontutan hartu eta garrantzia eman. - Babes kolektiboa eskeini.	- Babes kolektiboa eskaini eta konfiantzazko babes sarea sortu. - Bere beharrak eta denborak kontutan hartu eta ahal den neurrian, bideratu. - Babes neurrien beharra eta espazioen kudeaketa baloratu da berarekin.	- Babes kolektiboa eskaini eta konfiantzazko babes sarea sortu. - Bere beharrak eta denborak kontutan hartu eta, ahal den neurrian, bideratu (saio bat atzeratu, baja...). - Babes neurriak eta espazioen kudeaketa adostuko da berarekin. - Ezagutzen ditugun profesional ezberdinen berri eman berak, nahi izatekotan, erabiltzeko.
ERASOA EGIN DUENA	- Egindakoaren berri ohartaraziko zaio izandako jarrera berriro ez errepikatzeko eskatuz, ahal izanez gero, gertuko arduradun edo dinamizatzailearen partetik. - Formazio feminista espezifikoa edo maskulinitate ereduen gainekoa proposatu ahal zaio. - Ez bada jarrera aldaketa bat ikusten eta erasoak errepikatzen badira, kudeaketa lantaldeari helaraziko zaio eta 2. Prozedura jarriko da martxan.	- Erasoa jasan duenaren egoera kontutan hartuz, babes neurri moduan espazio eta funtzio batzuetatik baztertua izan daiteke denbora batez. - Eragindako mina onartuz gero, prozesu bat proposatuko zaio. Trebakuntza feminista edota lanketa pertsonala egiteko ezagutzen ditugn baliabideak erraztu diezaizkiokegu. - Baloratuko da espediente ireki et CVan markatuta geratzea X urtez eta soldatan eragitea (X hilabete etxean soldata gabe, adibidez).	- Lanaldiaren jarduera eten. - Babes neurri moduan espazio eta funtzio batzuetatik kanporatua izango da denbora batez. - Eragindako mina onartuz gero, prozesu bat proposatuko zaio. Lanketa pertsonala egiteko ezagutzen ditugn baliabideak erraztu diezaizkiokegu. - Kasu larrienetan behin betiko kanporatze zuzena baloratuko da.

↓ hurrengo orrialdean jarraitzen du

ERASOA EGIN DUENA		Egindakoa onartzen ez badu, prozesuan parte hartzen ez badu edo aldaketarik ez bada ematen, 3. prozedurako neurriak aplikatu daitezke.	
KOLEKTIBOA	- Hurbileko lankideekin partekatuz gero, guztion ardura izango da hurrengo asteetan holakoak identifikatzea. - Publikoa bada, momentuan bertan egoera moztu. - Berdintasun planean barne bildutako trebakuntza jarraia izango da jarrera matxistak deuseztatzeko bidea. Besteak beste: emakumeentzako ahaluntzea sustatzea, formazio feminista, taldeen parte hartze eta demokratizaziorako tresnak, gatazken kudeaketa...	- Publikoa bada, momentuan bertan egoera moztu (denon ardura da). - Kasuaren inpaktuaren arabera baloratu saio kolektibo espezifikoa beharrezkoak diren: indarkeria matxistan trabakuntza, gogoetarako espazioak, emakumeentzako.	- Publikoa bada, momentuan bertan egoera moztu (denon ardura da). - Kasuaren inpaktuaren arabera baloratu saio kolektibo espezifikoa beharrezkoak diren: indarkeria matxistan trabakuntza, gogoetarako espazioak, emakumeentzako espazioak...
INFORMAZIOAREN ETA KASUAREN KUDEAKETA	- Erasoa jasan duenak berak kudeatu nahi izanez gero, hor amaitzen da esku hartzea. - Kasu honetan, marko hurbileneko arduradunari edo dinamizatzaileari helarazi ahal zaio gertatutakoa. Bera (erasotzarekin batera edo ez) arduratu daiteke eraso egin duenarengana joatea egindakoa helarazteko. - Errepikakorra bada edo arduraduna bada eraso egin duena, protokolo taldera jo.	- Kudeaketa taldea arduratu da. - Beharra egotekotan, soilik ezinbestekoak diren gertuko lankide edo arduradunekin partekatuko da beharrezkoa ikusten den informazioa.	- Kudeaketa taldea arduratu da. Beharrezkoa ikusten bada, kanpo aholkularitza eskatu daiteke. - Beharra egotekotan, soilik ezinbestekoak diren gertuko lankide edo arduradunekin partekatuko da beharrezkoa ikusten den informazioa. - Prozedura judiziala egongo balitz, erakundeak dituen datuak prozesuaren mesedetan jartzeko prestutasuna agertuko du. Larritasunaren arabera, Elkarteak prozedura judizialera batzea erabaki dezake.
	1. PROZEDURA	2. PROZEDURA	3. PROZEDURA

↑ aurreko orrialdean hasten da

● Erdi bideko esku hartzeak

ADIN TXIKIKOEN ARTEAN • Elkartearen Bertso eskoletan edo aisialdiko egitasmoetan (udalekuak, barnetegiak...)	Amaierako eranskinean ikusgai: “Erantzun azkarreko gida”
LIBREKI ANTOLATURIKO BERTSO SAIO EDO BERTSO ESKOLA BATEAN	Amaierako eranskinean ikusgai: “Erantzun azkarreko gida”
BERTSO ELKARTEAK ANTOLATUTAKO BERTSO SAIO, TXAPELKETA EDO JAIALDIETARAKO	Amaierako eranskinean ikusgai: “Erantzun azkarreko gida”

6.

Kudeaketarako bitartekoak

6.1 PROTOKOLO LAN TALDEA

● Kudeaketa markoaren ezaugarritzea

Protokoloa kudeatzeaz arduratuko den lan taldearen osaeran, besteak beste, ardura postuetan dauden profilen eta gaitasun edota motibazioa dela eta daudenen arteko oreka bilatuko da; inplikaturiko erasotuak ez da komeni bertan modu zuzenean parte hartzea, erabakiak hartzerakoan bere iritzia eta beharrak kontutan hartuko diren arren; halaber, inplikaturako pertsonekin harreman pertsonal estua dutenen parte hartzea ere saihestuko da.

Bestalde, Bertsozale Elkartearen protokoloaren ardura izango duen lan taldeak, ondorengo ezaugarri zehatzak beteko ditu:

- Marko berri bat, aurreko erabakigune eta lan taldeetatik bereizia.
- Euskal Herri mailan jardungo duen lan talde bakarra.
- Izaera iraunkorreko lan taldea.
- Erasok kudeatzerako orduan erreferentziala izango da.
- Kasuan-kasu bilduko dena, edo erasorik ez gertatzekotan ere protokoloa berrikusteko elkartuko dena.
- Lan taldea mistoa izatekotan, parekidea ala emakumeen presentzia handiagoa bermatuko da.

Taldearen osaera eta profilak

Taldearen tamaina

Kopuru mugatua izan behar du, talde operatiboa, eraginkorra eta diskretua izan dadin, eta informazioaren kudeaketa egokia bermatze aldera. Hala, talde iraunkorra 4 kidez osatuko da eta eta bertan erabakigune nagusietan parte hartzen duten muineko pertsonak izatea bermatu behar da (zuzendaritza kide, koordinatzaile...).

Herrialdekako ordezkariak

Lurralde bakoitzean protokoloaren arduradun bat egongo da, salaketa bidea eta lan talde-rako bidea erraztu eta gerturatzeko. Erasoa gertatu den herrialdearen arabera, ordezkari hau batuko da lan talde iraunkorrera. Kasuan kasu kudeatzen lagunduko lukeen beste behin be-hineko kideren bat sartzea baloratu daiteke.

Lan taldeko kideen ezagutzak

- Lan taldeko kideen aurre ezagutzak, interesa eta motibazioa kontutan hartuko dira lantaldean sartzeko irizpide moduan.
- Iraunkorki daudenek formakuntza espezifikoa jaso behar-ko dute.
- Kasuaren arabera, kanpo aholkularitza profesionala eskatu daiteke (Baliabideen mapa osatu).

Ardura epealdiak

- Beharren arabera zehaztuko dira txandakatze epealdiak.
- Ez dira denak batera txandakatuko aldiro hutsetik ez abiatzeko. Iraunkortasuna lehenetsi, kideen formakuntza bermatze aldera.
- Derrigorrezko txandatzea baino motibazioaren araberakoa izatea komeni.
- Borondatezkoak eta soldatapekoak aldatu daitezke.
- Lan taldeko kideren batek inplikaturako pertsonetik har-remman esturik izatekotan, taldeak erabakiko du pertsona hori taldetik atera edo ez.


Lan taldearen hedapena

Kanpora begira:

Taldearen erreferentziazko telefonoa edo helbide elektronikoa.

Barrura begira:

Irigarritasuna bermatzeko, herrialdeko erreferentziazko ordezkaria.



Egiturarekin informazioaren kontrastea


 Biziki garrantzitsua da informazio fluxua eta komunikazioaren kontrola prozesu osoan zehar.

Lan taldeak erabakiko du zein informazio eta non partekatu, baina orokorrean irizpide hauek jarraituko dituzte:

- Erasoa gertatutako herrialdeko batzordean hilero egingo da lanaren hustuketa (datuak ez, informazioa)
- Protokoloa aktibatu dela eta itxi dela jakinaraziko da EHko Zuzendaritza Batzordean, baina ez erasoaren inguruko informaziorik.
- Urteroko Batzar Orokorrean: kasuistika kopuru edo ehunekoak eman, zehaztasunetan sartu gabe.
- Lan batean eragiten badu, lan horretako arduradunak dena jakin behar du, prebentziorako gutxienez.
- Kasuan kasu aztertu behar da informazio gehiago partekatu ala ez, noiz eta ze guneeetan.

6.2 BALIABIDEEN MAPA

Kasuaren arabera, kanpoko profesionalen esku hartzeak beharko dira. Horregatik, komeni da aurrez ikuspegi feminista duten eta ahal den neurrian filosofia honekin bat egiten duten profesionalen zerrenda edo mapa prest edukitzea, gaur egun lan hau ez dagoelako eginda edo sistematizatua. Besteak beste baliabide hauek pentsatu ditzakegu:



ERANSKINA:
Erantzun Azkarreko Gida

ERASO MATXISTEN ERANTZUN AZKARREKO GIDA

BERTSOZALE ELKARTEA 2021

Indarkeria matxista jendarte antolaketa patriarkarrak duen tresna nagusia da genero sisteman erroterik dauden pertsonen arteko desberdinkeria sozialak eta gizon-emakume botere-harremanak birsortzeko eta emakumeak azpiratzeko. Honetaz gain, indarkeria matxista kontzeptuak, espazio fisiko eta sinboliko guztietan, tradizionalki ezarritako genero binomio edo eskemetatik at kokatzen diren gorputz eta identitateengan ematen den indarkeria mota oro jasotzen du, hala nola, homofobia, lesbofobia eta transfobia.

Indarkeria honek **askotariko formak** hartu ditzake eta guztiak hartuko ditugu kontutan, izozmendiaren puntuan kokatu ditzakegun eraso ikusgarrienetatik hasita (borxaketa, ukituak, jazarpena, iraintzea...), hain agerikoak ez direnetaraino (astuna izatea, lerdetsu aritzea, mespretxatzea, mehatxatzea, xantaia, komentarioak eta epaiak, gutxiespenak, etab.).

Gida honetan Bertsozale Elkarteak antolatutako edo gertukoak diren eta erantzun azkarra eskatzen duten lau egoera ezberdinetan nola jokatu azalduko dugu modu laburrean:

- | | |
|---|---|
| 1- Bertso Elkarteak antolatutako bertso saio edo jaialdietan. | 3- Sare sozialetatik emandako erasoen kasuetan. |
| 2- Libreki antolatutako bertso saio edo bertso eskolatan. | 4- Adin txikikoak tarteko daudenean. |

Erasoa jasan duena edota erasoa egin duena egiturako kide badira, gida honetan planteatzen den momentuko esku hartzearen ondoren, barne mailako protokoloa martxan jarri daiteke prozesu luzeago bati hasiera emanez.

Edozein zalantzarekin edo laguntza eskatzeko, idatzi email honetara:

lantaldefeminista@bertsozale.eus

1. BERTSOZALE ELKARTEAK ANTOLATUTAKO BERTSO SAIO EDO JAIALDIETARAKO

Protokolo honek Bertsozale Elkartek antolatutako bertso saio, txapelketa edo bestelako jaialdietan eman daitezkeen eraso matxistak kudeatzeko gida lagungarri bat izan nahi du. Bertan jasotzen dira alde zuretik martxan jarri beharreko prebentzio neurriak, momentuan egin beharreko esku hartzea eta ondoren egin daitezkeen erantzun publikoak.

PREBENTZIOA, AURRE LANKETA

- Jaialdiaren **hasieran aurkezleak** bestelako aipamenen artean eraso matxistak ez direla onartuko eta kasu hauetarako protokolo bat dagoela adieraziko du.
- Aldez aurretik grabatuta egongo den **kuña jarriko da jaialdiaren momentu ezberdinetan**. Bertan esango da guzti honetan ez dela eraso sexista, homofobo, lesbofobo eta transfoborik onartzen (indarkeria matxista) eta zerbait gertatzen, txaleko morea duten kideengana hurbildu daitezkeela babes bila. Gogoratu daiteke ere, erasoak kolpeak, bortxaketak edo ukituez harago, komentarioak, mespretxuak, irainak, txisteak, jazarpena, txantaiak edo begirada bat izan daitezkeela. (Txaleko moreak ez dauden kasuetan erreferentzia zein izango den aldez aurretik erabakiko da).
- Ekimen handietan **puntu morea** jarri daiteke erreferentziatzeko gune bezala.
- **Protokoloa azaldu txaleko morea eramango dutenei**, beraiek dira zerbait gertatzen zela zer egin jakin behar dutenak. Komeni da aurretik guztiak elkartu eta formazio txiki bat jasotzea.
- Gai ezberdinen inguruko **formazio saioak** antolatu daitezke urtean zehar: indarkeria matxistaren prebentzioa, Autodefentsa Feminista, maskulinitateak...

ESKU-HARTZEA

Bi eszenatoki ezberdinduko ditugu:

1) INTENSITATE BAXUKOA: Astuna izatea, gehiegizko ukitzeak, lerdetsu aritzea, iraintzea, mespretxatzea, mehatxatzea, xantaiak, etab.

- Erasoa jasan duenarekin toki lasai batera eta bermatu inongo momentuan ez dela bakarrik geratzen.
- Emakumea arreta eta errespetu handiz entzun, babes emozional osoa eskaini, aitakeriaz jokatu gabe. Ez epaitu eta ez jarri zalantzan esaten dizuna. Galdetu zelan dagoen eta zer behar duen. Erasotua izan den pertsonari dagokio beti zer egin erabakitzea.
- Behar eta erabakitzen duen horretan lagunduko diogu. Izan daiteke eraso egin duenaren jarrera moztea, izan daiteke lasaitu arte berarekin egotea, etxera joateko laguntza duela ziurtatzea (lagun taldea bilatzen lagundu, taxi bat deitu...).
- Erasoa egin duen gizonari jarrera erasokor hori bertan behera uzteko exijituko diogu, espazio honetan ez direla eraso matxistarik onartzen eta hauek kudeatzeko protokolo bat dagoela martxan.
- Jaramonik egiten ez badu, gunetik kanporatuko dugu horretarako behar dugun laguntza bilatuz.

Eraso bertsotan ari den gizon batek bertsotan ari den beste bertsolari bati egiten dihonean:

- **Txapelketa nagusian** bada, zaintza taldea oholztan eman daitezkeen eraso eta jarrera matxistekin adi egongo da. Zerbait sumatuz gero, amaieran erasoak jasan duenarengana joan eta galdetu zer moduz dagoen eta nola bizi izan duen. Berak onartzen ez bada, erasoak egin edo jarrera matxista izan duenarengana joan eta egindakoa azaldu. Jarrera positiboa bada eta egindakoaren ardura hartzen bada, hor utzi daiteke. Erresistentziak erakutsiz gero edo oldarkor jarri ezker, elkartearen erasoaren lantaldearekin hitz egin daiteke beraiek kasua kudeatzeko (lantaldefeminista@bertsozale.eus).
- **Bestelako saioetan** bada, elkartearen duen erasoaren kudeaketarako lantaldera jo dezake bizitakoa salatzeri eta beraiek hartuko dute erasoaren egin duenari toke bat emateko ardura (lantaldefeminista@bertsozale.eus).

2) INTENSITATE ALTUKOA: Kolpeak, jipoiak, eraso sexualak, bortxaketak, etab.

- Eraman erasoak jasan duen toki lasai batera eta bermatu inongo momentuan ez dela bakarrik geratzen. Kasu hauetan lagunduko dion pertsona emakume bat izatea lehenetsiko dugu.
- Arreta eta errespetu handiz entzun, babes emozional osoa eskaini. Ez epaitu eta ez jarri zalantzan esaten dizuna. Galdetu zelan dagoen eta zer behar duen. Erasotua izan den pertsonari dagokio beti zer egin erabakitzea.
- Guk 112ra deitzea proposatuko diogu, hortik bideratzen baitute arreta espezializatua kasu hauetarako: osasun arreta, polizia, psikologikoa eta judiziala.
- Zure lehentasuna erasoak jasan duen emakumeari arreta ematea izan arren, saia zaitez erasoak egin duen bisualki identifikatzen. Ezin baduzu hori zuzenean egin, eskatu laguntza erasoak ikusi ahal izan duen edozeini.
- Ahal izatekotan, erasoak egin duen atxikitzen saiatu polizia heldu arte, zure burua eta ingurukoena arriskuan jarri gabe.

ERANTZUN PUBLIKOA

- Egokia ikusten bada, egunean bertan mikrofonotik zerbait esan edo alde zuretik prestatutako kuña bat jarri. Adibidez:

“Eraso matxista bat eman da duela gutxi. Argi utzi nahi dugu hau indarkeria matxistatik gabeko espazio bat izatea nahi dugula eta ez dugula inongo jarrera matxistatik onartuko”

- Hurrengo egunetan komunikatua atera aurrez prestatutako agiria oinarritzat hartuz (BertsoZalea berri-papera, web orria, sare sozialak).
- Elkarretaratze edo mobilizazioetarako deitzaile izatea, lekuko beste eragileekin batera.

2.

LIBREKI ANTOLATUTAKO BERTSO SAIO EDO BERTSO ESKOLA BATEAN

Normalean kasu hauetan bertso saioaren osteko egunetan iritsiko zaigu eraso horri buruzko informazioa. Lehenengo gauza, erasoak kudeatzen dituen lantaldeari iritsi zaigun informazioa helaraztea izango da beraiek kudeatzeko (lantaldefeminista@bertsozale.eus).



PREBENTZIOA

- Bertsozale Elkarteak antolatutako bertso saioetarako gidaren atala zintzilikatu dezakegu web orrian holako saioetan bestelako antolatzaileek eredu moduan erabili dezaten.
- Kuñaren bat egiten bada saioen hasieran jartzeko, hau ere eskuragarri jarri daiteke.

ESKU HARTZEA

- Iritsi zaigun informazioa kontrastatu beharrezkoa ikusten dugun pertsonekin.
- Antolatzaileekin harremanetan jarri informazioa elkar trukatzeko, daukagun informazioa partekatuko dugu beraiekin.
- Egon daitezkeen bestelako protokoloak lehenetsiko dira (adibidez, gaztetxe batean ematen bada eta bertan protokolo bat badute edo ikastetxe batean baldin bagaude, ikastetxearena izango da ardurar). Argi eduki behar dugu kasu hauetan antolatzaileena dela kasua kudeatzeko ardura. Hala ere, elkarteak indarkeria matxistarekiko egin duen posizionamenduari koherenteak izango gara beti.

ERANTZUN PUBLIKOA

- Beharrezkoa ikusten denetan, elkarteak adierazpen publiko bat egin dezake erasoak jasan duenari babesa adieraziz. Ikusten denetan, antolatzaileekin batera, biek sinatuta atera daiteke agiria. Elkarteak agiria atera dezake nahiz eta antolatzaileek nahi ez izan.
- Herri horretako mugimendu feministak, udalak, edo bestelako eragile sozialak batek elkarretaratzea deituz gero, elkarteak deialdira batzea.

3. SARE SOZIALETATIK EMANDAKO ERASOETAN

- Kasu bat ikusten dugunean, erasoen kudeaketa lantaldeari helaraziko zaio (lantaldefeminista@bertsozale.eus). Bertatik egingo da informazioaren kontrastea eta erabakiko da zer egin.
- Ala ikusten den kasuetan, alde aurretik prestatutako adierazpena oinarri hartuta, salaketa publikoa egingo da.

4. ADIN TXIKIKOAK TARTEKO DAUDENEAN

Elkartearen Bertso eskoletan edo aisialdiko egitasmoetan (udalekuak, barnetegiak...) eman daitezke.

Bereziki biak adin txikikoak diren kasuetarako pentsatuak daude irizpideak. Erasoa egin duena egiturako kidea bada (langilea, begiralea, bert-solaria...), barne mailako protokoloa martxan jarri daiteke prozesu luzeago bati hasiera emanez.

PREBENTZIOA

- Udaleku zein barnetegietan feminismoa eta indarkeria matxisten inguruko formazioak antolatu daitezke edo gaia landu bertsoen bitartez, ariketa edo jolasen bitartez...
- Elkarbizitza arauak azaltzearekin batera, eraso eta jarrera matxisten gaia aipatu eta protokoloa azaldu. Ez dugu zertan protokolo hitza erabili behar, besterik gabe neskek argi izatea zer den eraso bat edo zeintzuk izan daitezkeen onartu behar ez dituzten jarrera matxistak eta holako zerbait bizitzekotan, begiraleengana jotzeko esango diegu. Beraien babes osoa izango dutela sentitu behar dute hasieratik.

ESKU HARTZEA

Bi eszenatoki ezberdinduko ditugu:

1) INTENTSITATE BAXUKOA: Astuna izatea, gehiegizko ukitzeak, lerdetsu aritzea, iraintzea, mesprezatzea, mehatxatzea, xantaiak, etab.

Erasoa jasan duenarekin

- Joan harekin toki lasai batera eta bermatu inongo momentuan ez dela bakarrik geratzen. Lagunen batekin etorri daiteke. Lagunduko dion pertsona emakume bat izatea lehenetsiko dugu.
- Arreta eta errespetu handiz entzun, babes emozional osoa eskaini. Ez epaitu eta ez jarri zalantzan esaten dizuna. Galdetu zelan dagoen eta zer behar duen. Behar eta erabakitzen duen horretan lagunduko diogu.
- Egitasmoa amaitzerakoan bere gurasoei gertatutako kontatzea baloratuko da.

Erasoa egin duenarekin

- Harekin toki lasai batean bilduko gara. Azalduko diogu egin duena eraso matxista bat dela eta gure espazioetan ez dugula holako jarrerarik onartuko. Azalduko dizkiogu bere jarrerak beste pertsonarengan izandako ondorioak.
- Egitasmoa amaitzean, bere gurasoei gertatuakoa kontatuko diegu.
- Jaramonik egiten ez badu edo jarra oldarkor eta arduragabea erakusten badu, bere gurasoei hitz egingo dugu momentuan eta egitasmotik kanporatzea baloratuko da.

Komunitatearekin

- Kasuak talde osoari edo zati handi bati eragin badio, ikusi badute edo mugituak badaude, gaia lantzeko saio berezi bat prestatu daiteke.

2) INTENTSITATE ALTUKOA: Kolpeak, jipoiak, eraso sexualak, bortxaketak, etab.

Erasoa jasan duenarekin

- Joan harekin toki lasai batera eta bermatu inongo momentuan ez dela bakarrik geratzen. Lagunen batekin etorri daiteke. Lagunduko dion pertsona emakume bat izatea lehenetsiko dugu.
- Arreta eta errespetu handiz entzun, babes emozional osoa eskaini. Ez epaitu eta ez jarri zalantzan esaten dizuna. Galdetu zelan dagoen eta zer behar duen.
- Gurasoak deituko ditugu ahalik eta lasterren eta bertaratzeko eskatuko zaie.
- Egoera oso larria bada edo momentuan gurasoak ezin badira bertaratu, guk 112ra deitu dezakegu, hortik bideratzen baitute arreta espezializatua kasu hauekarako: osasun arreta, poliziala, psikologikoa eta judiziala.

Erasoa egin duenarekin

- Toki lasai batera eramango dugu eta ez dugu bakarrik utziko. Azalduko diogu egin duena eraso matxista bat dela eta oso larria dela.
- Bere gurasoak deituko ditugu bere hala, gertatutakoa kontatu eta ahalik eta lasterren bertaratzeko eskatuko diegu. Egitasmotik kanporatua izango da.

Komunitatearekin

- Kasua talde osora iritsi bada, ikusi badute edo mugituak badaude, gaia lantzeko saio berezi bat prestatu daiteke.


ERANTZUN PUBLIKOA

Adin txikikoen kasuan EZ da salaketa publikorik egingo.





bertsozale
elkarte



emagin
**Formazioa eta
ikerketa
feminista**

www.emagin.eus

943 59 09 02

emagin@emagin.eus